

Azterketak



Eusko Jaurlaritzaren
eta Nafarroako Gobernuaren
2011rako aurrekontuei
buruzko ELAren balorazioa

ELAren Azterketa Bulegoa

Non zer

AURKEZPENA	3
A. HEGO EUSKAL HERRIKO AURREKONTU PROIEKTUEI	
BURUZKO ONDORIO ERKIDEAK	4
1. Ondorioak	4
2. Aurreko urtealdietako aurrekontuen emaitzak	5
3. Zor publikoa	7
4. Zerga gastuak	10
5. Osasuneko gastu publikoa nazioarteko inguruan	11
6. Hezkuntzako gastu publikoa nazioarteko inguruan	12
7. Arlo publikoaren murrizketak	13
B. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO	
2011KO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA	15
1. Gastu publikoa	15
2. Osasuneko gastu publikoa	18
3. Hezkuntzako gastu publikoa	19
4. Etxebizitzako gastu publikoa	21
5. Pobreziaren eta gizarte bazterketaren kontrako borroka	22
6. Eusko Jaurlaritzaren inbertsioak	24
7. Elkarrizketa sozialeko mahaiari subentzioak	25
C. NAFARROAKO 2011RAKO	
AURREKONTUEN PROIEKTUA	27
1. Gastutzat hartutako zerga gastuak	27
2. Gastu publikoa	30
3. Osasuneko gastu publikoa	32
4. Hezkuntzako gastu publikoa	34
5. Euskara sustatzeko gastu publikoa	35
6. Etxebizitzako gastu publikoa	36
7. AHTaren finantzaketa	37
8. Zerga iruzurraren aurkako borroka	38
9. Hainbat zergaren aldaketa partziala eta beste zerga neurri batzuk xedatzeko Foru Legearen proiektua	39
NOTAK	42

AURKEZPENA

Aurrekontu murrizketen politikak onartzeko orduan adostasun politiko zabala dago bai Nafarroan eta bai Euskal Autonomi Erkidegoan. Aurrekontuak aurrera ateratzeko onartu beharreko ustezko baldintzen inguruko adierazpenak ez dira irudi apainketa baino UPN eta PSNrentzat Foru Erkidegoan eta PSOE, PP y PNVrentzat Euskal Autonomi Erkidegoan.

Nafarroan sakoneko akordioa dago UPN eta PSN artean. Izan ere, bi alderdiek baliokidetzen dituzte aplikatzen diren politikak. Argi dago 2011ko aurrekontuak aipatutako alderdi politiko bien oniritziarekin onartzeko direla, Plan Modernarekin, zerga politikarekin, edo aurreko urteetako aurrekontuekin gertatu den bezala.

Euskal Autonomi Erkidegoan gaiak korapilatsuagoa dirudi. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren (PPren babesarekin PSOEk gobernatua) aurrekontuak daude jokoan, eta bestetik, Foru Aldundienak (PNVren esku daudenak). Hala ere, PNV eta PSOE aurrekontu guztien onarpena erraztera konprometitu diren akordio bat dago Erkidego honetan, duela urte bete gertatu zen bezala. 2010eko urriaren 11an Diputatu Nagusien eta Rodolfo Aresen (Eusko Jaurlaritza eta PSOEren ordezkari gisa) artean akordioa lortu zen, eta hau publiko egiteko Bizkaiko Diputatu Nagusiaren, Jose Luis Bilbaoren adierazpenak, akordio horren adibide dira:

- 2011rako sarreraren aurreikuspenaren zenbatekoa adostu zutela, eragin zuzena duena Gobernu eta Aldundien gastuaren zenbatekoan.
- PSEk Aldundien aurrekontuen onarpena baimenduko duela.

Ikusten den bezala, aurrera eramaten ari diren aurrekontu murrizketa larriak onartzeko arazorik ez duen adostasun politiko zabala dago, bai Hego Euskal Herrian, eta bai Espainiar estatuan.

Txosten honetan 2011rako Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontu proiektuen eduki zehatza aztertuko dugu, eta baita hauen ondo larriak ere.

A. HEGO EUSKAL HERRIKO AURREKONTU PROIEKTUEI BURUZKO ONDORIO ERKIDEAK

1. ONDORIOAK

Eusko Jaurlaritzaren (EJ) eta Nafarroako Gobernuaren (NG) aurrekontu-proiektuen inguruan egin daitekeen ondorioztapenik garrantzitsuena euren gastu publikoen gutxipen handia da, zalantzarik gabe. Murrizketa hori, gainera, 2010ean egindakoari batu behar zaio.

Oraingo krisi-egoeran, gastu publikoa murriztea bereziki kaltegarria da, arazoak larriagotzea eta langabezia eta gizarte-babesgabetasuna areagotzea eragingo baitu. Oraingo abagunean, arlo pribatuak jaitsiera ekonomikoak dituelarik, Administrazioaren eginbeharrak gastu publikoa handituz joera hori konpentsatzea izan beharko luke.

Azterlan honetatik atera daitekeen beste ondorio bat hauxe da: Hego Euskal Herriko administrazioek gastu publikoa handitzeko marjina zabala dutela. Izan ere, askoz diru-sarrera handiagoak lortu ahaliko lituzkete, defizit eta zor publiko handiagoak onartuz, edo zerga-gastuak murriztuz, edo bilketa handitzea ahalbidetzeko moduko zerga-sistema batera aldatuz (soldatukoak ez diren errenten zerga-iruzurraren kontra borrokatuz, eta errenta handiei eta kapital-errentei zerga-presio txikiagoa ekarri dieten zerga-erreforma guztiak lehengoratuz). Hortaz, EJK eta NGk hautatutako bidea litekeen bidegabeena eta antisozialena da, krisia biztanleria osoari jasanarazten diolako, eta bereziki, gastu sozialaren premia handiena dutenei.


Txostenak, halaber, Hego Euskal Herrian, nazioarteko ingurunearekin aldeturik, osasuneko eta hezkuntzako gastu publikoan dauden gabezia handiak ikusteko aukera ematen du. Gabeziak, gainera, gainerako gizarte-arlo guztietan ere hautematen dira, nazioartean gizarte-alorrean egiten duten ahalegina eta darabiltzaten ereduak Hego Euskal Herrikoak baino askoz hobek direla agerian utziz.

EAEko aurrekontuen emaitzak

Diru-sarrerak uste baino gehiago izan direnez, eta EJK 1.888 milioi euroko zor publikoa (aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa) jaulkitzea aurreikusten duelarik, 2010eko ekitaldiaren amaierarako, diru-sarrerak gastuak baino 106,5 milioi euro gehiago izatea espero dute. Hau da, Eusko Jaurlaritzak diru hori ez gastatzea erabaki du, nahiz eta hor eduki eta, aipatu berri dugunez, arlo guztietan hain gabezia handiak egon.

Aurreko 2 urtealdiak defizitez itxi dira; zehazki: 2008ko ekitaldian, defizita 603,6 milioi eurokoa (BPGd-aren %0,9) izan zen, eta 2009an, 2.512,2 milioikoa (BPGd-aren %3,9). Hala eta guztiz ere, Jaurlaritzak aurreko urtealdiak superabitez itxi dituenenez, 2001-2009 aldian metatutako saldoa 110,7 milioi euroko defizita baino ez da.

**Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu emaitza
(milioi eurotan). 2001-2009**




*Iturria: Aurrekontuaren Gauzapean Mailari buruzko Estatistika,
2009ko 4. hiruhilekoa*

Nafarroako aurrekontu-emaitzak

Azken 10 urteetako aurrekontu-emaitzei erreparaturik, 4 ekitaldi itxi dira defizitez, eta 6 superabitez. 2000ko urtealditik hona metatutako emaitzak 58,9 milioi euroko defizita agertzen du. Jasotako azken informazioa 2009koa delarik, urtealdi hori 350 milioi euroko defizitaz amaitu zen, hau da, BPGd-aren %1,7ko defizitaz.

Nafarroako Gobernuaren aurrekontu emaitza (milioi eurotan). 2000-2009.



Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorraren likidazioaren laburpena (Nafarroako Gobernua)

Ondorioak

Krisi ekonomikoa baino lehenagoko urteetan, gastatzeko zegoen diru guztia ez gastatzea eta urtealdiak superabitez ixtea izan da Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak orokorrean hartu izan duten jarrera.

Oraingo defizit-mailei dagokienez, honako hau zehaztu beharra dago:

- Nahiko baxuak dira. Gainera, aurrekontu-emaitzatik harago joaz, garrantzitsuena krisiari aurre egitea litzateke eta,

horretarako, gastua asko handitu beharko litzateke, egiten ari direnez bestela.

- b) Diru-sarreraren erorketaren ondorio dira, gastua handitu izanaren ondorio barik. Ekonomiaren bilakaerak diru-sarrera publikoak baldintzatzen dituelarik ere, zerga-bilketaren gutxipenaren zati handi bat errenta handi eta kapital-errententzako zerga-kenketetan funtsatutako zerga-politikak eragin du.

3. ZOR PUBLIKOA

Administrazio publikoen zorpetze-mailak zuzeneko lotura du aurrekontu-emaitzarekin.

Eusko Jaurlaritzaren zor publikoa

Aurrekontu-proiektuan aipatzen denaren arabera, Eusko Jaurlaritzak 2011n, 2.205,14 milioi euroko zorra¹ egin ahal izatea aurreikusten du, nahiz eta aurreikuspen horren konplimendua bere garaian aztertu beharko den. Izan ere, azken urteetan Jaurlaritzak egindako zorra aurrekontuetan jasotakoa baino nabarmenki txikiagoa izan da (2010eko urtealdian, guztizko zorpetze-aurreikuspena 3.952,3 milioi eurokoa zen; azaroaren hasieran, ordea, 1.888 milioi euroko zorpetzea aurreikusten du 2010erako).

Eusko Jaurlaritzak 2010eko ekitaldiaren amaierarako aurreikusten duen zor bizia 3.968,7 milioi eurokoa² da, hots, BPGd-aren %6 bestekoa. Baina EJK zor biziari buruz eskaintzen duen zenbatespena 412,4 milioi euro handiagoa da, 4.381,1 milioi eurokoa (BPG-aren %6,7), hain zuzen ere. Diferentzia horren arrazoa Jaurlaritzak aurreko urteetan sinatu izan dituen baina erabili ez dituen kreditu-lineak dira, kontabilitatean erabili balira bezala jasotzen direnak.

Eusko Jaurlaritzak 2009ko ekitaldiaren itxieran zeukan zor biziak, 2.080,7 milioi eurokoak (BPGd-aren %2,8), ordura arte izandako bilakaeraren joera-aldaketa argia erakusten du. Grafikoan ikusten denez, EJ-ren zorrak etengabe galdu zuen pisua 2007ko urtealdira arte, zorrik ez jaulkitzearen eta zegoen zorra amortizatzearen ondorioz. 2008ko ekitaldian, zorrak BPGd-aren 0,2 puntuko gehikuntza izan zuen, BPGd-aren %0,7ra heldu arte, ondoren, 2009ko %2,8ra eta 2010ean aurreikusitako %6ra igarotzeko.


Nafarroako Gobernuaren zor publikoa

2010eko ekitaldian, Nafarroako zor publikoa 1.499,1 milioi eurokoa da, 2009koa baino %48,3 handiagoa eta 2001ekoa baino %132 handiagoa. Era horretan, 2010ean, BPGd-aren %8,1 bestekoa da.

Nafarroako zor publikoak BPGd-aren aldean izan duen bilakaerak joera-aldaketa handi bat agertzen du 2008an, jaitsiera-urte batzuen ostean, goranzko joera hartu baitzuen, 2007an BPGd-aren %3,6 bestekoa izatetik, 2010erako aipatutako %8,1era iristeraino.

Nafarroako Gobernuak, aurten, Nafarroako informazio garrantzitsua eman du zorpetzeari buruz, zor pribatuarekin erkatu ere egin baitu. Horrela jakin ahal izan dugu 2009ko urtealdian zorpetze-maila (zor bizi) publikoa BPGd-aren %5,5 bestekoa baino ez zela izan, zor pribatua BPGd-aren %128,4ra heldu zelarik. Alegia, NGren informazioaren arabera, zorpetze pribatua 23 bider handiagoa da publikoa baino.

Nafarroako Gobernuaren zorpetze publikoa eta pribatua (BPGd %). 2009




Iturria: Ekonomiaren eta Nafarroako Ogasunaren egoera eta iguripenak (Nafarroako Gobernuak), NEI

Ondorioak

Azken 2-3 ekitaldietan EJren eta NGren zor biziak nabarmenki hazi badira ere, gobernuon zorpetze-mailak oso baxu jarraitzen du, antzeko eskumen-maila duten beste instituzio batzuekin alderatuta. Gogoratu, bestela, laidoztaturiko Egonkortasun Itunak BPGd-aren %60ko muga jasotzen duela, eta sistematikoki gainditzen ari dela, gainera. Beraz, argi dago defizit-maila ezin dela aurrekontu-murrizketak edo gizarte-gastuaren gutxipenak arrazoitzeko aitzakia gisa erabili.

Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren zor biziak (BPGd %), 1998-2010



Iturriak: Administrazio Orokorrak 2010eko urtealdirako aurreikusitako Aurrekontu Likidazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren 2001-2009 aldiko Urteko Kontuak, Eustat, Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentua, NEI

Hego Euskal Herriko gobernuen zorpetze-mailaren baxuaz ohartzeko, HEHn, urtebetean (2008an, dugun azken informazioa urte horretakoa baita) eratutako hipotekak urtealdi horretako BPGd-aren %7,3 bestekoak³ izan direla (BPGd-aren %6,2koak Nafarroan⁴ eta BPGd-aren %7,6koak EAEn⁵) ikustea besterik ez dago. Horrek esan nahi du Nafarroan urtebetean bakarrik eratutako hipotekak Nafarroako zor publikoaren maila berean daudela ia, eta EAEko kasuan, hipotekek EJren guztizko zorpetze-maila gainditu ere egiten dute.


4. ZERGA GASTUAK

EAEko zerga-gastuak

Eusko Jaurlaritzak 2011ko urtealdirako aurkeztutako aurrekontu-proiektuak 6.306,1 milioi euroko zenbatekoa jasotzen du gastu fiskalen atalean (kenketa, salbuespen, minorazio eta abarretan). Horixe da bildu ahalko litzatekeen baina biltzeke uztea hautatzen den zatia.

Zenbateko horren tamainaz konturatzeko, nahikoa da esatea gastu fiskalik ez balego, diru-sarrera publikoak %50 handiagoak izan ahalko liratekeela. Bistan dagoenez, diru-sarrera publikoa ez ezik, gastu publikoaren maila ere itzel baldintzatzen erabat zerga-gastuek.

Zerga gastuak eta benetako diru sarrerak (guztizkoaren %). Foru Aldundiak, 2011




Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua

Nafarroako zerga-gastuak

Nafarroan 1.586,8 milioi euroko zerga-gastuak aurreikusten dira 2011rako. Horren arabera, Nafarroako Gobernuak diru-kopuru hori biltzea erabakiko balu, diru-sarrerak %41,2 handituko lirateke, eta horrekin batera joan liteke gastu publikoaren maila ere.

Zerga gastuak eta benetako diru-sarrerak (guztizkoaren %), Nafarroako Ogasuna, 2011



Iturria: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua

5. OSASUNEKO GASTU PUBLIKOA NAZIOARTEKO INGURUAN


Hego Euskal Herriko osasun-gastua nazioarteko ingurunearekin alderatzean ikusten denez, urtero, ELGEko zerrendaren amaieran jarraitzen dugu.

2007ko urtealdia aztertzean (horixe baita azken datuak dagozkion urtea), ELGEko batez besteko osasun-gastu publikoa BPGd-aren %6,5ekoa izan zen, HEHkoa BPGd-aren %4,4koa izan zelarik (BPGd-aren %4,4koa EAEn eta %4,6koa Nafarroan). Modu horretan, HEHk BPGd-aren 2,1 puntuko defizita du (BPGd-aren 2,1 puntukoa EAEn kasuan, eta 1,9 puntukoa, Nafarroarenean) ELGEko batez bestekoarekin konparaturik.

Ildo horretan, 2007ko ekitaldian, HEHn, inbertitutakoak baino 1.755,8 milioi euro gehiago gastatu beharko ziren (1.404,8 milioi euro gehiago EAEn eta 351 milioi gehiago Nafarroan), ELGEN osasunean egiten den gastu publikoaren batez besteko mailara heltzeko.

Nabarmenezkoa da, halaber, Hego Euskal Herriko osasun-gastu publikoak gainerako herrialdeetakoarekin erkatzearen emaitza. Izan ere, grafikoan ageri diren 16 estatuetako osasun-gastuekin alderaturik, HEHkoa baita gastu guztietan txikiena (EAEn eta Nafarroakoa bezalaxe). Arreta ematen du, era berean, HEHko osasuneko gastu publikoa, BPGd-aren ehunekotan neurtua, Espainiako Estatukoaren azpitik egoteak.

Osasuneko gastu publikoa (BPGd %). ELGE, 2007




Iturria: ELGE, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2007, Eustat, 2007ko Aurrekontu gauzatua (Nafarroako Gobernua), NEI

6. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA NAZIOARTEKO INGURUAN

Hezkuntzako gastu publikoari dagokionez ere, nazioarteko inguruarekiko erkaketatik antzeko ondorioak ateratzen dira. Zehatz esateko, 2007ko ekitaldian (Europa mailako azken informazioa ere urte horretakoa da eta), hezkuntzako gastu publikoa BPGd-aren %5,2koa izan zen batez beste ELGEN, HEHN, berriz, BPGd-aren %3,5ekoa izan zelarik (BPGd-aren %3,6koa EAEn eta BPGd-aren %3,1ekoa Nafarroan). Horrela, HEHk ELGEko batez bestekoari buruz agertzen duen defizita BPGd-aren 1,7 puntukoa da (BPGd-aren 1,6 puntukoa EAEn kasuan eta 2,1 puntukoa Nafarroarenean). Horren arabera, Hego Euskal Herrian, hezkuntzan gastatutako diru publikoa baino 1.447,8 milioi euro gehiago gastatu beharko ziren (1.062,8 milioi EAEn eta 384,9 milioi Nafarroan), inguruko herrialdeek batez beste hezkuntzan bakarrik gastatutakoaren mailara iristeko.

ELGEko 16 herrialdeekin konparatuta, 16ek gastatzen dute hezkuntzan Hego Euskal Herriak (eta EAEk eta Nafarroak) baino BPGd-aren portzentaje handiagoa.

Hezkuntzako gastu publikoa (BPGd %). ELGE, 2007



Iturria: ELGE, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren 2007ko Urteko Kontuak, Eustat, 2007ko Aurrekontu gauzatua (Nafarroako Gobernua), NEI

7. ARLO PUBLIKOAREN MURRIZKETAK

EAEen egindako murrizketak

Langileen atalean, 2011rako aurrekontu-proiektuaren testuak berretsi egiten du krisiaren ondorioak administrazioan diharduten langileei jasanarazten jarraitzea dela Eusko Jaurlaritzak hautatutako bidea. Xede horrekin bat, 2011rako, soldatak izoztea erabaki du, 2010aren erdialdean ezarritako soldata-izozketaren ostean. Berez, 2011ko soldata 2010ean baino txikiagoa izango dela esan nahi du horrek.

Modu horretan, helburua eskubideak murriztea denean, Ajuria Eneakoek poz handiz betetzen dute Moncloako enordezkari hutsaren egitekoa.

Negoiazio kolektiboaren ildotik, Eusko Legebiltzarrean onartzeko proposatutako testua oso larria da. Alde batetik, ezeztatu egiten dute lortutako akordioetatik soldata-izozketaren kontra doan guztia (Mahai Orokorrari buruzko hitzarmenari buruz ari da, 2011rako 2010eko KPIa gehi %0,5 jasotzen zuenari buruz, alegia, berariaz aipatzen ez badu ere). Bestalde, berriro adierazten du etorkizuneko Aurrekontu Legeek xedatu dezaketenarekin bat ez datozen soldata-igoerak eragiten dituzten akordioak erabat hutsalak izango direla. Horrek ziurtatu egiten du negoziazio kolektiboaren heriotza, arlo honetan.

Nafarroan egindako murrizketak

Nafarroako Gobernuak 2010ean zehar onartu dituen murrizketen ondorioz, langileria aktiboaren ataleko gastuak %4,5 urritzen dira 2011rako aurrekontu-proiektuan, horrek 50 milioi euro gutxiagoko gastua dakarrelarik.

Aurrekontua gobernuak berak egin duen sailkapen ekonomikoaren arabera aztertzen badugu, gastu txikiago hori, neurri handi batean, 2011rako soldata-izozketaren ondorioa dela ikusten da, bai eta ordezen-kontratuen kontrol hertsia goaren ondorio ere. Hots: 2011n soldatak jaitsi egingo dira eta langile gutxiago egongo dira.

Argi dago Administrazioan lan egiten dutenen kontura egiten den gastua gero eta txikiagoa dela, edo soldata-izozketak zuzenean eraginik, edo zeharka, ordezena behar duen langilea ez ordezteagatik.

B. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2011KO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA

1. GASTU PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzak 2011ri begira aurkeztu duen aurrekontu-proiektuak 10.549,5 milioi euroko gastua jasotzen du. Baina zenbateko horri honako kopuru hauek kendu behar zaizkio, gastuaren bilakaera homogeneotasunez aztertu ahal izateko ere:

1. 472 milioi euro, enplegu-politika aktiboen transferentziagatik (denak Lanbiden bildurik). Eskumen berri hori Eusko Jaurlaritzaren eskuetan egongo da 2011ko urtarriletik aurrera, eta dagokion zenbatekoa kendu egin behar da aurrekontu-proiektutik, aurreko ekitaldietako datuekiko erkaketa homogeneoa izan dadin.
2. Aurrekoetan bezala, ez dugu sartu "trenbide-sare berria kudeatzeko kredituen atala", 2011ko proiektuan 275,1 milioi euro dagozkiona. Izan ere, atal horretako zenbatekoak Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari urtero eskualdatzen dizkion kopuruak dira eta, beraz, ez dira Jaurlaritzaren berezko gastua.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren 2011rako aurrekontu-proiektuan jasotako gastua, aurreko urteetako datuekiko analisi homogeneoa eginez, 9.802 milioi eurokoa da.

Hortaz, 2011rako aurrekontu-zuzkidurak 434,5 milioi euroko gutxipena erakusten du 2010eko itxiera-aurreikuspenari buruz, eta 452,5 milioikoa, 2009an egindako gastuarekin alderatuz gero.

Oraingo egoera ekonomikoan langabezia eta gizarte-babesgabetasuna izugarri handiak direla eta hazten jarraitzen dutela aintzat hartuta, gastu publikoa murriztea oso kaltegarria da.

Osasun eta Kontsumo Saila da, berriro ere, aurrekontu-zuzkidurarik handiena duena, guztizkoaren %34,8arekin, eta ondoren datoz, hurrenez hurren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (gastu osoaren %27,1), Herrizaingoa (guztizkoaren %7,2) eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila (guztizkoaren %4).

**2011rako Aurrekontu Proiektua eta 2010eko
likidazio aurreikuspena, datu homogeneoekin.
Eusko Jaurlaritza⁶**

	2011ko Proiektua			2010eko Aurreikuspena	
	Miloi euro	Guzt.%	BPGd%	Miloi euro	BPGd%
Osasuna eta Kontsumoa	3.406,7	34,8	5	3.546,1	5,4
Hezkuntza, Unib. eta Ikerketa	2.660,8	27,1	3,9	2.790,2	4,2
Herrizaingoa	704,0	7,2	1	705,2	1,1
Enplegua eta Gizarte Gaiak	525,9	5,4	0,8	637,0	1,0
Etxebizitza, Herrilan eta Garr.	431,5	4,4	0,6	517,1	0,8
Kultura	285,3	2,9	0,4	294,1	0,4
Beste Batzuk	1.787,7	8,4	1,2	1.746,9	2,7
Guztira	9.802,0	100	14,4	10.236,6	15,6

*Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua,
Administrazio Orokorren 2010eko Aurrekontuaren Likidazio-Aurreikuspena,
Eustat*

2011rako aurreikuspen homogeneoak erakusten duen gastu publikoa BPGd-aren %14,4koa da. Horrek esan nahi du EAEko ekonomian sortzen diren 100 eurotik 14,4 bideratzen dituela Eusko Jaurlaritzak gastu publikora.

Horren arabera, Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoak ekonomian duen pisua 2010eko itxiera-aurreikuspenean jasotakoa (BPGd-aren %15,6) baino BPGd-aren 1,2 puntu urriagoa izango da, bai eta 2009an egindako gastua (BPGd-aren %15,9) baino 1,5 puntu txikiagoa ere. Horrek, eurotan adierazirik, hauxe esan nahi du: Gobernuaren gastuak 2010ean ekonomian zuen pisuari eusteko bakarrik beharko liratekeenak baino 806,3 milioi euro gutxiago jasotzen dituela 2011ko aurrekontu-proiektuak. Eta 1.061,4 milioi euro falta direla, 2009ko ekitaldikoaren parera heltzeko. Dirutza horiek gizarte-gastura ez bideratzeko hautua egitea arduragabekeria hutsa da, ekonomiaren, gizartearen zein enpleguaren ikuspuntutik.

Modu horretan, krisi ekonomikoan bete-betean sartuta gaudelarik, EJ murriztu egiten ari da bere aurrekontua, eta krisia larriagotzen, horrelaxe.


2011ko Aurrekontu Proiektua, 2010eko likidazio aurreikuspena eta 2009ko likidazioa, datu homogeneoekin. Eusko Jaurlaritza⁷

	2009	2010	2011
Miloi euro	10.254,5	10.236,6	9.802
BPGd %	15,9	15,6	14,4

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorraren Proiektua, Administrazio Orokorraren 2010eko Aurrekontuaren Likidazio-Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren 2009ko Urteko Kontuak, Eustat

Hurrengo grafikoak Eusko Jaurlaritzaren gastuaren pisuak 2001ko urtealditik aurrera izan duen bilakaera erakusten du. Bertan, nahiko joera konstantea ikus daiteke 2008ko ekitaldira arte; joera hori hautsi egiten da 2009an, gastu publikoaren pisuaren igoerak (BPGd-aren jaitzieraren ondorioa) eraginda, eta berriro ere jaisten da, bai 2010ean, bai 2011n.

Gastu publikoa, datu homogeneoekin (BPGd %). Eusko Jaurlaritza, 2001-2011⁸



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorraren Proiektua, Administrazio Orokorraren 2010eko Aurrekontuaren Likidazio-Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren 2001-2009 aldiko Urteko Kontuak, Eustat

2. OSASUNeko GASTU PUBLIKOa

2011ko ekitaldiari begira, Osasunerako aurreikusitako gastua 3.400,2 milioi eurokoa da. Horrek 104 milioi euroko jaitsiera erakusten du 2009ko gastuaren aldean, eta 39,9 milioi eurokoa, 2010eko itxiera-aurreikuspenari buruz.

Osasuneko gastuak 2011n ekonomian izango duen pisua BPGd-aren %5 bestekoa da, hots, 2010eko itxiera-aurreikuspeneko gastua eta 2009an egindako gastua baino BPGd-aren 0,4 puntu gutxiago. Era horretan, osasunerako aurrekontuak 268,4 milioi euro handiagoa izan beharko luke, osasuneko gastu publikoak 2010eko urtealdiaren amaieran BPGd-an izango duen pisuari eusteko, eta 296,7 milioi handiagoa, 2009ko pisua izateko.


Osasuneko gastu publikoa (BPGd %). Eusko Jaurlaritza, 2009-2011⁹

	2009	2010	2011
Milioi euro	3.504,2	3.540,1	3.400,2
BPGd %	%5,4	%5,4	%5,0

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, Administrazio Orokorren 2010eko Aurrekontuaren Likidazio-Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren 2009ko Urteko Kontuak, Eustat

Osasuneko gastu publikoaren pisuak ekonomian izan duen bilakaera guztizko gastuarenaren antzekoa da; izan ere, 2008ra arte joera konstantea ageri den bitartean, 2009an gorantz aldatzen da (BPGd-ak urtealdi horretan izandako jaitsieraren ondorioz), 2010eko eta 2011ko urtealdietan berriro jaitsi aurretik.

Osasuneko gastu publikoa (BPGd %). Eusko Jaurlaritzak, 2001-2011¹⁰



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, Administrazio Orokorraren 2010eko Aurrekontuaren Likidazio-Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren 2001-2009 aldiko Urteko Kontuak, Eustat

3. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera bideratzeko 2011n aurreikusitako gastua 2.660,8 milioi eurokoa da, hots, 2009an baino 163,3 milioi euro gutxiagokoa, eta 2010ean baino 129,4 milioi euro txikiagoa ere (2010ean ere gastua 2009an baino txikiagoa izan baitzen).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2011n izango duen pisua BPGd-aren %3,9koa da, alegia, 2010eko itxiera-aurreikuspenean baino BPGd-aren 0,3 puntu txikiagoa, eta 2009ko gastuak baino 0,5 puntu gutxiagokoa. Hortaz, hezkuntzako gastu publikoak 2010ean izango bide duen pisuari eusteko, hezkuntzako 2011ko zuzkidurak 230,7 milioi euro handiagoa izan beharko luke, eta 2009ko pisua mantentzeko, berriz, 318,6 milioi euro handiagoa.

Hezkuntzako gastu publikoa. Eusko Jaurlaritza, 2009-2011

	2009	2010	2011
Miloi euro	2.824,1	2.790,2	2.660,8
BPGd %	%4,4	%4,2	%3,9

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, Administrazio Orokorren 2010eko Aurrekontuaren Likidazio-Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren 2009ko Urteko Kontuak, Eustat

Hezkuntzako gastuaren barruan, hezkuntza-tarteei erreparatzean ikusten denez, 2011ko aurrekontuan Bigarren Hezkuntza, Osabidezkoa eta Lanbide Heziketa hartzen dituen tarterako jasotako gastua, 930,5 milioi eurokoa (BPGd-aren %1,4) da; Haur eta Lehen Hezkuntzen tarterako jasotakoa, berriz, 932,9 milioi eurokoa (BPGd-aren %1,4), eta Unibertsitateen tarterakoa, 349,1 milioi eurokoa (BPGd-aren %0,5).


Hezkuntzako gastu publikoa, tarteaik kontuan hartuta. Eusko Jaurlaritza, 2009-2011

		2009	2010	2011
<i>Bigarren H., Osabidezkoa, LH</i>	Miloi euro	995,1	981,0	930,5
	BPGd %	1,5	1,5	1,4
<i>Haur eta Lehen H.</i>	Miloi euro	1100,6	991,1	932,9
	BPGd %	1,7	1,5	1,4
<i>Unibertsitate H.</i>	Miloi euro	368,7	360,5	349,1
	BPGd %	0,6	0,5	0,5

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, Administrazio Orokorren 2010eko Aurrekontuaren Likidazio-Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren 2009ko Urteko Kontuak, Eustat

Ondorengo grafikoak agertzen duenez, hezkuntzako gastuaren bilakaerak guztizko gastuaren joera bera du. Horrez gain, azken 2 ekitaldietan zehar gertatzen ari den jaitsiera hezkuntza-tarte guztietarako berdintsua dela ikus daiteke. Gastuaren epe luzerako bilakaerak erakusten duenaren arabera, Haur eta Lehen Hezkuntzen tarteko esfortzua zertxobait hobetu da (behar zena baino askoz gutxiago, hala ere), eta Bigarren Hezkuntza, Osabidezko Hezkuntza eta Lanbide Heziketakoa, ordea, urritu egin dira, nahiz eta, lehen ere esan dugunez, hezkuntzako gastu osoari buruz ezin da bilakaera onuragarririk aipatu.

Hezkuntzako gastu publikoa, ikastarteei erreparatuta (% PIB). Eusko Jaurlaritza, 2001-2011



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, Administrazio Orokorren 2010eko Aurrekontuaren Likidazio-Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren 2001-2009 aldiko Urteko Kontuak, Eustat

4. ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOA

Etxebizitzarako, 2011ko aurrekontu-proiektuan jasotako zuzkidura 162,2 milioi eurokoa da: 2010ean baino 12,9 milioi euro txikiagoa eta 2009an baino 55,2 milioi txikiagoa. Berez, 2005eko ekitaldiraino egin beharko genuke atzera, etxebizitza-politikarako hain gastu-zuzkidura urria aurkitzeko.

Etxebizitzako gastu publikoaren pisua BPGd-aren %0,24koa da; hots, 2010ean baino BPGd-aren 0,03 puntu txikiagoa, eta 2009an baino 0,10 puntu txikiagoa. Modu horretan, sail horrek 2010aren amaierarako aurreikusten duen pisu bera izateko, 2011ko aurrekontuko gastuak 19,3 milioi euro handiagoa izan beharko luke, eta 2009ko gastua mantentzeko, 67,1 milioi euro handiagoa.


Etxebizitzako gastu publikoa. Eusko Jaurlaritza, 2009-2011

	2009	2010	2011
Milioi euro	217,4	175,2	162,2
BPGd %	0,34	0,27	0,24

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, Administrazio Orokorren 2010eko Aurrekontuaren Likidazio-Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren 2009ko Urteko Kontuak, Eustat

Etxebizitzako gastu publikoak BPGd-ari buruz duen pisuaren ikuspegia are etsigarriagoa da 10 urteko epealdia aztertzen badugu, une honetako baino pisu txikiagoko ekitaldi bat topatzeko, 2002ko urtealdiraino egin beharko baikenuke atzera.

Etxebizitzako gastu publikoa (BPGd %). Eusko Jaurlaritza, 2001-2011



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, Administrazio Orokorren 2010eko Aurrekontuaren Likidazio-Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren 2001-2009 aldiko Urteko Kontuak, Eustat

5. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN KONTRAKO BORROKA

2009ko urtealdian, Ejk Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legearen legegintzazko garapena egin zuenerako,

EAEko ekonomia krisian sartuta zegoen jadanik, eta prozesu horrek areago murriztu eta mugatu zituen behartsuen gizarte-prestazioak. Orduan egin ziren murrizketa handienetako baten ondorioz, aurrerantzean etxebizitza bakoitzeko gizarte-prestazioen gehienezko kopurua 2koa izango zen. Modu horretan, ordura arte prestazioak kobratzen zituzten pertsonetako asko gerokoan ere kobratzen jarraitzeko eskubide barik geratu ziren.

Pobreziak EAEn duen bilakaerari buruzko datu gaurkoturik ez badugu ere, argi dago krisi ekonomikoak areagotu egin duela egoera, langabeziaren eta gizarte-babesgabetasunaren ondorioz.

Ebidentzia horri ezikusiarrena eginez, Eusko Jaurlaritzak oso aurrekontu murriztaileak prestatu ditu, pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokari dagokionez ere, eta fenomeno larri horiek hazten ari diren arren, 2,5 milioi euroko murrizketa egin du beraietarako aurrekontu-zuzkiduratik. Prestazio bakoitzerako zuzkiduren azterketa xehatuak ikusten uzten duenaren arabera:

- Gizarte-larrialdietarako laguntzei (GLL) esleitutako aurrekontu-zuzkidura 17,3 milioi eurokoa da, 2010eko urtealdiko berbera, hain zuzen ere, nahiz eta aurtengoan zehar argi geratu den kopuru hori guztiz eskasa dela. Berez, Eusko Jaurlaritzak 6,7 milioi gehiago erantsi behar izan dizkio zenbateko horri.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak ez dira oraindik eskubide; beraz, aurrekontuan horretarako jasotako zuzkidura amaitzen denean, hartzaileak prestaziorik gabe geratzen dira, Jaurlaritzak, 2010ean bezala, horretarako aurrekontu-zuzkidura handitu ezean behintzat, eta hala eta guztiz aurtengoan ere txiki geratu direla ahaztu barik. Edonola ere, aurrekontu-gehikuntza unean uneko borondate politikoaren menpe dago.

- Diru Sarrerak Bermatzeko Errentara (DSBE) bideratzeko, 280 milioi euro zehaztu dira aurrekontuan, hots, 2010ean baino 1,4 milioi euro gutxiago. DSBEa eskuratzen duten pertsonen kopurua nabarmenki handitzen ari da (%17,3 hazi da 2009ko irailetik 2010era bitartean), eta horrek 2011ko ekitaldirako zuzkidura urriegia izango dela pentsarazten digu.

Legearen garapenak, etxebizitza bakoitzeko 2 DSBEko mugaz gain, prestazioaren kobrantza zailago egiten duten murrizketa eta oztopo gehiago ekarri zituen, eta ez zituen ezertan ere hobetu zenbatekoak (oraindik ere LAGSaren

%88koa baita pertsona bakarreko bizikidetza-unitateetarako; %113koa, bi bizikide direnean, eta %125ekoa, unitatea 3 lagunek edo gehiagok osatuz gero), DSBEa jasotzeko eskubidedunek izan beharreko gutxienezko adina ere, 23 urte, jaitsi ez zuen bezalaxe.

ELAk LAGSaren %100eko DSBEa aldarrikatzen du pertsona bakarreko bizikidetza-unitateetarako, eta bertan bizi den lagun gehigarri bakoitzeko, 18 urtetik aurrera, %50 gehitzea.

- Etxebizitzarako prestazio osagarriari (EPO) 42 milioi euroko zuzkidura esleitu zaio, hau da, 2010ean baino 1,4 gutxiago. Egitate hori bereziki asaldagarria da, etxebizitzak alokairuan lortzeko oztopo ekonomikoak nabarmen latzagoak diren une honetan.

GLLei etxebizitzaren alokairu-gastuen zama kentzeko filosofiak sortarazi zuen prestazio hori, ez zuen osorik bete egiteko hori, etxebizitza berean kobratu daitekeen gehienezko EPOen kopurua ere bikoia da eta.

Gizarte prestazioetarako aurrekontu zuzkidura (milioi eurotan). Eusko Jaurlaritza, 2010-2011

	2011	2010
Gizarte-larrialdietarako laguntzak	17,3	17,3
Diru-sarrerak bermatzeko errenta	280	281,4
Etxebizitzarako prestazio osagarria	42	43,1
Guztira	339,3	341,8

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011rako Aurrekontu Orokorren Proiektua

6. EUSKO JAURLARITZAREN INBERTSIOAK

Eusko Jaurlaritzak, beste erakundeek bezala, harrokeriaz agertzen du bere “inbertsioetan esfortzu altua”. 2011rako aurrekontu proiektuaren datuek argiki ezeztatzen dute baieztapen hau. Eusko Jaurlaritzak baliabide gutxi zuzentzen ditu Inbertsio Errealetara. Gainera, inbertsioetara zuzentzen den erdia AHTra doa, honek baliabideen alferrik galtzea ez ezik, ekonomi, gizarte eta ingurumen ondorio larriak ere badituelarik. Bien bitartean, ongizatea hobetzera zuzendutako inbertsioak (osasungintza, hezkuntza, etxebizitza sozialak, zerbitzu publikoen hobekuntza, etab.) oso eskasak dira,

eta honek, kalitate galerarekiko eta gero eta ugariagoak diren beharrian sozialekiko ardura eza erakusten du.

2011rako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu proiektuak Inbertsio Errealak 598,7 milioi eurotakoak izango direla jasotzen du. Kopuru honen erdia (298,6 milioi) AHTra zuzendua dago. Zenbateko honetatik 275,5 milioi espainiar Gobernuak finantzatzeko ditu, Eusko Jaurlaritzak Madrilen erabaki eta inposaturiko azpiegitura baten betearazlea bakarrik baita. AHTra zuzenduriko beste 23,1 milioi ez dira berreskuratuko.

Eta hemen bukatzen da Eusko Jaurlaritzaren esfortzua inbertsioei dagokionez. Trenbide sare, hezkuntza sistema, osasungintza, etxebizitza e.a.en beste beharrianek oso zuzkidura baxuak dituzte. Nahikoa da ondorengo inbertsio partidak AHTra zuzenduriko kopuruekin alderatzea:

- Beste trenbideetan inbertsioak, Metroa barne, 18,8 milioi euro.
- Etxebizitzan inbertsioak, 32,9 milioi euro.
- Bigarren hezkuntza eta lanbide heziketan inbertsioak, 28,8 milioi euro.

Eusko Jaurlaritzaren inbertsioak (milioi euro), 2011

Kontzeptua	Miloi euro
AHTrako Espainiar Estatuaren finantzaketa	275,5
AHTrako Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa	23,1
Beste trenbideak	14,1
Metroa	4,7
Etxebizitza	32,9
Haur eta Lehen Hezkuntza	46,0
Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	28,8
Inbertsioak guztira	598,7

*Iturria: 2011rako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrer
Proiektua*

7. ELKARRIZKETA SOZIALEKO MAHAIARI SUBENTZIOAK

Eusko Jaurlaritzak doikuntza politika eta aurrekontu murrizketak aurrera eramaten ari den arren, 2011ra begira ez dauka ekonomi arazorik Elkarrizketa Sozialaren Mahaia deiturikoan partehartzen

duten erakunde sindikal eta patronala subentzionatzeko. 2011rako aurrekontu proiektuak 2 partida jasotzen ditu horretarako, 557.675 eurotako bata (sindikatu eta enpresa erakundeei Mahaian partehartzearren) eta 200.000 eurotako bestea (Osalan-ekoa kasu honetan, Elkarrizketa Sozialaren Mahaia Garapen Hitzarmenatarako).

Elkarrizketa sozialeko mahaiaren finantzaketa. Eusko Jaurlaritzak, 2011

	Euroak
Sindikatu eta patronalari Elkarrizketa Sozialaren Mahaian partehartzearren	557.675
Elkarrizketa Sozialaren Mahaia Garapen Hitzarmenak	200.000
Guztira	757.675

Iturria: 2011rako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Proiektua

Mahai hau ez da partehartze instituzionalerako inolako erakunderik, ez dauka ezelako forma juridikorik, eta ez dauka alde bakoitzaren gehiengoak errespetatzen duen erabakitze sistemarik ere. Sindikatuen aldetik, Mahai honetan CCOO eta UGTk bakarrik partehartzen dute.

Eusko Jaurlaritzari bere politiketan kobertura emateko Mahaia besterik ez da errealitatean. Bertan harturiko akordioak txarrak dira: aldi baterako kontratazioak egiten dituzten enpresei subentzioak, Enplegu Erregulaziorako Espedientean dauden enpresentzat formakuntzarako diru-laguntzen dekretuaren aldaketa, Lanbideren sorrerari babesak Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko bezala eta Lotu akordioa.

Mahai hau finantzatzeko diru publikoa ematea onartezinezko demokrazi perbertsioa da. Eredu honetan partehartzen ez dugunok txantajea suposatzen du, eta sindikalismo mantsoa ekonomikoki saritzea.

C. NAFARROAKO 2011RAKO AURREKONTUEN PROIEKTUA

1. GASTUTZAT HARTUTAKO ZERGA GASTUAK

Nafarroako Gobernuak 2011rako aurrekontuen proiektuan jasotako gastua 4.188,3 milioi eurokoa da, 2010ean baino 252 milioi euro (%4,7) txikiagoa, ekitaldi horretako aurrekontu bateratua 4.440,3 milioi eurokoa delarik.

Baina zenbateko horren barruan, zerga-gastu diren kopuru garrantzitsuak daude; alegia, diru-kutxa publikoetara heltzen ez diren kopuruak. Horren arabera, benetako gastua nafar gobernuaren informazioan adierazitakoa baino txikiagoa da. Foru-gobernuaren ohiko jardunbide den hori urtero-urtero aurrekontuak makillatzean datza, eta gastua berez dena baino handiagoa dela sinestaraztea du xede, inguruko beste ezein herrialdetan gertatzen ez dena.

2011ko urtealdiko proiektuan jasotako zerga-gastuak 334,6 milioi euro dira, 2010erakoan (zeinetan 406,8 milioi euroko gastua islatu baitzen aurrekontuen proiektuan) baino 72,2 milioi gutxiago.

Era horretan, 2011ri begira, aurreikusitako benetako gastu publikoa 3.853,7 milioi eurokoa da, hots, 2010ean (4.033,5 milioi) baino 179,8 milioi gutxiago.

Hona hemen proiektuan sartutako zerga-gastuak:

**Aurrekontuen Proiektuan sartutako
zerga gastuak (euro). Nafarroa, 2011**

Proiektua	Aurre
Etxebizitza-alkairuen ziozko zerga-gastuak	15.400,3
Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatiko zerga-gastuak	138.227,0
Etxebizitza eta Lurralde Antolamendurako Dptu.	153.627,3
Enplegu-sorreraren ziozko zerga-gastuak	21.277,6
Inbertsioen ziozko zerga-gastuak	93.967,9
I+D+Bn inbertitzeagatiko zerga-gastuak	20.435,4
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua	135.680,9
Pentsioen ziozko kenketek eragindako zerga-gastuak	8.199,1
Kotizazioen ziozko kenketek eragindako zerga-gastuak	556,3
Giz.-aurreikuspeneko sistemetarako ekarpenen ziozko zerga-gtu.	44.752,3
Fam., Gazt., Kirol eta Gizarte Gaietarako Dptu.	45.308,5
Kultura-intereseke ondasunetan inbertitzeagatiko zerga-gastuak	1.000
Kultura eta Turismo Dptu. - Vianako Printzea Erakundea	1.000
Guztira	334.617,7

Iturria: Nafarroako 2011rako Aurrekontu Orokorren Proiektua

Proiektuan jasotzen diren eta benetako gastu ez diren zerga-gastuak kendutakoan, Nafarroako 2011rako Aurrekontu Proiektua honela geratzen da Departamentuka banaturik:


Aurrekontuen Proiektua
(milioi euro, guztizkoaren %, BPGd %). Nafarroa 2011

	Zerga-gtu Proiektua	Guzt.%	BPGd%
Osasuna	973,6	25,3	5,0
Ekonomia eta Ogasuna	664,2	17,2	3,4
Hezkuntza	638,3	16,6	3,3
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua	200,7	5,2	1,0
Familia, Gazteria, Kirola eta Gizarte Gaiak	332,8	8,6	1,7
Lehendakaritza, Justizia eta Barne-Dptu.	277,3	7,2	1,4
Toki Administrazioa	265,3	6,9	1,4
Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendua	72,8	1,9	0,4
Landa Garapena eta Ingurumena	163,8	4,3	0,8
Herrilan, Garraio eta Komunikazioak	171,1	4,4	0,9
Kultura eta Turismoa - Vianako Printzea Erak.	62,7	1,6	0,3
Erakundeekiko Harrem. eta Gob. Eleduna	12,9	0,3	0,1
Nafarroako Parlamentua	16,9	0,4	0,1
Nafarroako Ikus-Entzunezkoen Kontseilua	0,6	0,0	0,0
Nafarroako Kontseilua	0,6	0,0	0,0
Guztira	3.853,7	100	19,8

Iturria: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, NEI

2011rako Aurrekontuko gastuak, zerga-gastuak kendu ostean, izango lukeen pisua Barne Produktu Gordinaren %19,9koa litzateke, hau da, 2010ean baino 1,8 puntu gutxiago. Horrela, benetako gastua Gobernuak aurkeztutakoa baino BPGd-aren 1,7 puntu txikiagoa litzateke.

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako gastua eta benetako gastua (% BPGd). 2010, 2011




Iturria: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, NEI

2. GASTU PUBLIKOA

Hurrengo grafikoan, Nafarroako Gobernuaren gastuak 2001etik aurrera izan duen bilakaera ikusten da. 2011rako aurreikusitako gastua BPGd-aren %19,9koa da, hau da 2010ekoa baino 1,8 puntu baxuagoa eta 2009koa baino 1,6 puntu baxuagoa. Modu horretan, 1998tik honako kotarik baxuenetara eramaten gaituen jaitsiera bat dugu begien aurrean. Zehazki, 2003ko urtealditik 2005ekora bitartean baino ez da ageri 2011ko baino gastu txikiagoa. Gainera, 2011ko gastua 2001ekoaren berdina da, %19,9koa.

Gastu publikoa (BPGd %). Nafarroako Gobernua, 1998-2011



Iturriak: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2010eko Aurrekontu Bateratua, 2001-2009 aldiko Aurrekontu Gauzatua, NEI

Hamabi departamentuetatik hamaikatan murrizten da gastua

2011rako gastu publikoak bai BPGd-aren ehunekoan, bai eurotan izan du gutxipena.

Gastu publikoaren murrizketa, BPGd-aren portzentajeari dagokionez

2011rako proiektuan islatzen den gastu publikoak 0,93 puntuko jaitsiera agertzen du, BPGd-ari buruz. Jaitsiera orokorra da, izan ere, Toki Administrazioiko Departamentuan baino ez baita pixka bat igotzen gastua, BPGd-aren portzentaje gisa hartuta (0,01 puntu).

Gastu publikoaren gutxipena, eurotan.

Proiektuan, gastu-murrizketa ez da bakarrik jazotzen BPGd-aren arabera neurtzean, eurotan zenbatzean ere baizik. 2011ko aurrekontua 2010eko aurrekontu bateratua baino 179,8 milioi euro txikiagoa da, jaitsiera %4,7koa delarik.

Toki Administrazioa da, ikuspuntu honetatik ere, eurotan nolabaiteko gehikuntza duen departamentu bakarra (1,1 milioi euro).

Gainerako departamentu guztietan jaitsierak ageri dira, bai eta, zenbaitetan, jaitsiera nabarmengarriak: %31,8 Kultura eta Turismo Departamentuan, %17,3 Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuan, %10,2 Herrilan, Garraio eta Komunikazioetan, %6,4 Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan, %6 Hezkuntza Departamentuan eta Etxebizitza eta Lurralde Antolamendu Departamentuan, eta %4,3 Osasun Departamentuan.

Gastu aldea departamentuka (milioi euro, aldakuntza %, BPGd puntuak). Nafarroa 2010-2011

	Dif. Milioi euro	Ald.%	BPGd Ptu.Dif.
Osasuna	-41,9	-4,3	-0,22
Ekonomia eta Ogasuna	-0,8	-0,1	0,00
Hezkuntza	-38,3	-6	-0,20
Berrikuntza, Enpresa Eta Enplegua	-12,8	-6,4	-0,07
Fam., Gazt., Kirola eta Gizarte Gaiak	-23,9	-7,2	-0,12
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	-9,2	-3,3	-0,05
Toki Administrazioa	1,1	0,4	0,01
Etxebizitza eta Lurralde Antolamendua	-4,4	-6	-0,02
Landa Garapena eta Ingurumena	-9,4	-5,7	-0,05
Herrilan, Garraio eta Komunikazioak	-17,4	-10,2	-0,09
Kultura eta Turismoa- Vianako Printzea Erak.	-19,9	-31,8	-0,10
Erakund. Harr. eta Gobernuaren Eleduna	-2,2	-17,3	-0,01
Nafarroako Parlamentua	-0,7	-4,2	0,00
Nafarroako Ikus-Entzunezkoen Kontseilua	-0,03	-5,4	0,00
Nafarroako Kontseilua	-0,03	-5,4	0,00
Guztira	-179,8	-4,7	-0,93

Iturria: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, NEI

3. OSASUNeko GASTU PUBLIKOA

2011rako aurrekontuen proiektuan jasotako gastua 973,3 milioi eurokoa da, hots, 2010ean baino 41,9 milioi euro gutxiago, eta %4,3 gutxiago ere. Era horretan, osasuneko gastu publikoa 2011n BPGd-aren %5 bestekoa izango da, 2010eko ekitaldiarekiko 0,5 puntu jaitsita.

Azken hiru urteetako gastuaren bilakaerak argi erakusten du osasunerako zuzkidura BPGd-ari buruz erregistratutako mailarik baxuenean dagoela. Horrek esan nahi du, gastuak 2009an BPGd-ari buruz izan zuen partaidetza berari eutsiko balitzaio, 2011n, aurrekontuan jasotakoak baino 38,9 milioi euro gehiago bideratu beharko liratekeela Nafarroako osasunera, eta 2010eko partaidetza mantenduz gero, berriz, 97,4 milioi euro gehiago.


**Osasuneko gastu publikoa (milioi euro eta BPGd %).
Nafarroako Gobernua, 2009-2011**

	2009	2010	2011
Milioi euro	964,3	1.015,5	973,6
BPGd %	5,2	5,5	5,0

Iturriak: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2010eko Aurrekontu Bateratua, 2009ko Aurrekontu Gauzatua, NEI

Osasuneko gastua aspaldian geratu da urri Nafarroako osasun-premia hazkorrei erantzuteko, eta oraingo gastu-joerarekin nekez murriztuko da herrialde industrializatuen aldean dugun gastu-defizita.

**Osasuneko gastu publikoa (BPGd %).
Nafarroako Gobernua, 2001-2011**




Iturriak: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2010eko Aurrekontu Bateratua, 2009ko Aurrekontu Gauzatua, NEI

4. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA

011ko aurrekontuen proiektuan hezkuntzarako adierazitako gastua 638,2 milioi eurokoa da. Hezkuntzako gastu publikoa ere bai eurotan, bai BPGd-ari buruzko pisuan gutxitu da azken hiru urteetan. Zehatz esateko, aurrekontuan 2009an gauzatutako gastua baino 17 milioi gutxiago jaso dira, eta 2010eko itxiera-aurreikuspenean baino 38,3 milioi gutxiago.

Hortaz, 2011n hezkuntzako gastu publikoa BPGd-aren %3,3 bestekoa izango da. Era horretan, 0,3 puntu jaisten da 2010ekoari buruz, berez ia 2001ekoa bera (%3,2) delarik.

**Hezkuntzako gastu publikoa (BPGd %).
Nafarroako Gobernua, 1998-2011**



Iturriak: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2010eko Aurrekontu Bateratua, 2001-2009 aldiko Aurrekontu Gauzatua, NEI

Gastuari BPGd-an dagokion ehunekoak ohartarazten duenez, 2009ko ratio bera mantenduz gero, 38,7 milioi euro gehiago gastatuko lirateke hezkuntzan, eta 58 milioi gehiago lirateke, 2010eko BPGd-ari buruzko pisuaren portzentajeari eutsiko balitzaio.

Hezkuntzako gastu publikoa (milioi euro eta BPGd %). Nafarroako Gobernua, 2009-2011

	2009	2010	2011
Milioi eurotan	655,3	676,6	638,3
BPGd-aren %	%3,5	%3,6	%3,3

Iturriak: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2010eko Aurrekontu Bateratua, 2009ko Aurrekontu Gauzatua, NEI

5. EUSKARA SUSTATZEKO GASTU PUBLIKOA

Nafarroako Gobernuak aurrekontuetan euskara sustatzera bideratzen duen gastua. 2011n, 3,6 milioi euroko gastua aurreikusten du, hau da, BPGd-aren %0,016. Portzentaje horrek 2010ean (4 milioi euro gastatu ziren) baino %10 gutxiago gastatuko dela adierazten du, bai eta 2008an (5,5 milioi euro) baino %34,5 gutxiago ere. Horrez gain, zuzkidura horren barruan, euskarara ez ezik, Europako Erkidegoko hizkuntzen ikaskuntza ere badago sartuta, eta, beraz, euskarari zuzentzen zaion aurrekontua islatutakoa baino are txikiagoa da.

Euskara sustatzeko zuzkiduraren gehiena Euskarabidea (Instituto Navarro del Vasce) erakundera doa, zeinek, 2011n, 3,0 milioi euroko partida -2010ean baino 0,2 milioi gutxiago- izango duen. Horrek esan nahi du azken ekitaldian %6,2ko murrizketa egin dela, eta %25ekoa, 2008koarekin (4 milioi) konparatuta.

Euskarabideari zuzendutako kopuruak (milioi eurotan). Nafarroako Gobernua, 2010, 2009, 2008

2011	2010	2009	2008
3,0	3,2	3,1	4,0

Iturriak: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2010eko Aurrekontu Bateratua, 2009ko Aurrekontu Gauzatua, NEI

Euskarabideak euskararekin loturiko ikerketa, garapen, prestakuntza eta aholkularitza eginkizunak dauzka esleituta, bai administrazio publikoetarako, bai horietatik kanpo ere. Erakunde horrek jasoko duen zenbatekoaren barruan daude, besteak beste, Euskaltzaindiarekiko hitzarmenera zuzendutako partidak, zona euskalduneko ikastolentzako diru-laguntza berezia, gau-

eskolentzako diru-laguntza, euskara komunikabideetan jorratzeko programak, hizkuntza-politikaren analisi, azterketa eta ebaluaziorako programak edo soziolinguistika-proiektu eta azterlanak.

6. ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOA

Nafarroako Gobernuak 72,8 milioi euroko zuzkidura esleitzen dio aurrekontu orokorrean Etxebizitza Departamentuari; kopuru hori Nafarroako aurrekontuaren %1,9 da, eta BPGd-aren %0,4.

Etxebizitzako gastua 2011rako aurreikusitako BPGd-aren %0,4 da, hots, 2010ean (BPGd-aren %0,6) baino 0,2 puntu txikiagoa. Eurotan zenbatuta ere, bilakaera negatiboa ageri da, aurrekontuak 4,5 milioi gutxiagoko gastua aurreikusten baitu, 2010eko itxiera-aurreikuspenaren aldean, 77,3 milioi eurotik 2011ko 72,8 milioietara.

Etxebizitza Departamentua hiru programaren arabera antolatzen da: Etxebizitza eta lurraldearen antolamendurako Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak barne hartzen dituenak 2,1 milioi euroko zuzkidura du; Lurralde-plangintzak eta hiri-plangintzak osatutakoari 6,6 milioiko aurrekontua esleitzen zaio, eta Etxebizitzen Eraikuntza eta Birgaikuntzari, berriz, 64,2 milioi euro. Programa guztietan murrizten da aurrekontua.

Etxebizitza eta Lurralde-Antolamendurako Departamentuaren gastu publikoa. Nafarroako Gobernua, 2010-2011

	2011		2010
	Milioi euro	BPGd %	Milioi euro
Ingurumen, lurraldearen antolamendu eta etxebizitzarako Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2,1	0,01	2,3
Lurralde-plangintza eta hiri-plangintza	6,6	0,03	7,0
Etxebizitzen eraikuntza eta birgaikuntza	64,2	0,33	68,0
Guztira	72,8	0,38	77,3

*Iturriak: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua,
2010eko Aurrekontu Bateratua, NEI*

Zerga-gastuak aurrekontuan sarturik, argi geratzen da etxebizitzarekin loturiko zerga-arinketei (153,6 milioi) etxebizitzako gastu publikoaren bikoitza baino gehiago dagokiela.

Nafarroako Gobernuaren etxebizitza-politikak, beraz, lehenetsuna ematen die zerga-arinketei, etxebizitzako gastu publikoaren aurretik, eta horrek ez dakarkie inolako onurarik egoera okerreanean dauden pertsoneri, politika horren hautuaren zioz, diru-sarrera publikoak etxebizitza erosten dutenei ematen baitzaizkie, jabetza lehenetsiz. Zehazki, zerga-arinketen %90 doaz etxebizitzaren erosketara, eta gainerako %10a baino ez, alokairura.

Etxebizitzako zerga arinketak. Nafarroako Gobernua, 2011

	Milioi euro	%
Etxebizitzaren alokairuaren ziozko zerga-gastuak	15,4	10
Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatiko zerga-gastuak	138,2	90
Guztira	153,6	100

Iturria: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua

7. AHTAREN FINANTZAKETA

2011rako aurrekontu-proiektuan, Nafarroako Gobernuak AHTak eragiten dituen gastuei aurre egiteko aurreratu behar dituen partidak daude sartuta. Azpiegitura horrek, ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetan ondorio larriak ekartzeaz gain, ez du inolako gizarte-erabilgarritasunik.

Guztira, 43,2 milioi euro ordainduko dira aurrean, honako hiru partida hauetan zatiturik: bata, trenbidea eraikitzekoa, 43 milioi eurokoa; beste bat, tren-korridorea hobetzeko azterlanetarakoa, 0,5 milioi eurokoa, eta hirugarrena, Iruñerriko Abiadura Handiko Partzuergoarentzat, 0,15 milioi eurokoa.

Abiadura Handiko Trenerako aurrekontu zuzkidurak (milioi eurotan). Nafarroako Gobernua, 2011.

Azalpena	Milioi euro
AHTaren nafar korridorearen eraikuntza	43
Tren-azpiegiturak hobetzeko azterlanak	0,5
Iruñerriko Abiadura Handiko Partzuergoa	0,15

Iturria: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua

8. ZERGA IRUZURRAREN AURKAKO BORROKA

Nafarroako Gobernuak aspaldian hartu zuen zerga-ikuskaritzarako zerbitzu egokia izateko behar diren baliabideez ez hornitzeko erabaki politikoa. Ez dago jokabide hori justifikatu ahal duen arrazoirik, iruzurrarekiko permisibitatea ez bada. Zerga-iruzurraren aurkako politika eraginkor batek bilketa handiagoa egiteko aukera ematen du, iruzurretan galdutako dirua berreskuratuz.

2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektuak zergen ikuskaritzari dagokion programa jasotzen du.

Zehazki, Nafarroa osoan zerga-ikuskaritzan arituko diren 48 pertsona aipatzen ditu, nahiz eta, gaur egun, 48 postu horietatik ogasun-teknikariei dagozkien 6 hutsik dauden (beraz, 42 dira). Talde horretan 16 ogasun-teknikari, 14 kudeatzaile eta 4 administrari daude, eta gainerakoak unitate, sail eta bulegoetako buruak eta zerbitzu-zuzendari bat dira. Hau da, hutsik dauden lanpostuak kontuan hartuta, ikuskaritzan arituko diren pertsonen kopurua aurreko ekitaldietakoak beste izango dira. Izan ere, ikuskaritzan jardun zuten pertsonak 44 izan ziren, hutsik zeuden 2 lanpostu barne (42 pertsona).

Gainera, aurreikusten diren ikuskapenen kopurua ere 300 eta 400 artekoa da, 2010ean bezalaxe. Horren arabera, Ikuskaritza Zerbitzuko pertsona bakoitzak egin beharreko ikuskapenen kopurua jaitsi egin da, 2010ean 7 eta 9 artean izatetik, 6 eta 8 artean izango baitira 2011n.

Zerga ikuskaritzari buruzko datuak. Nafarroako Gobernua, 2010- 2011

	2010	2011
Baliabide Pertsonalak	44	48
Ikuskatu beharreko zergadunen Kp.	300-400	300-400
Ikuskatzaile bakoitzeko ikuskapenen Kp.	7-9	6-8

Iturriak: Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren Proiektua

Bestalde, ikuskatutako zergadunen kopurua azken 6 urteetakoan antzekoa da. Zehatz esateko, 2009an, 343 lagun ikuskatu ziren, 2008an (349) baino 6 gutxiago eta 2003an (333 zergadun) baino 10 gehiago, hain zuzen ere.

**Ikuskatutako zergadunak.
Nafarroako Gobernua, 2003-2009**

2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
333	335	323	336	297	349	343

Iturria: Nafarroako Gobernua

Izapidetzen diren ikuskapen-espeditenteak ere ez dira ugaritu aztertzen ari garen epealdian; horra hor datuak: 2009an, 376 espeditente kudeatu ziren, eta 2003an, 363 izan ziren. Are garrantzitsuagoa da 2008tik (420 espeditente) 2009ra artean jazotako gutxipena, 44 espeditente gutxiago izapidetu ziren eta (%11,7 gutxiago).

**Kudeatutako ikuskapen-espeditenteak.
Nafarroako Gobernua, 2003-2009**

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Pertsona fisikoak	247	208	117	216	126	152	118
Merkataritza-sozietateak	116	150	218	151	228	268	258
Guztira	363	358	335	367	354	420	376

Iturria: Nafarroako Gobernua

**9. HAINBAT ZERGAREN ALDAKETA PARTZIALA
ETA BESTE ZERGA NEURRI BATZUK XEDATZEKO
FORU LEGEAREN PROIEKTUA**

Hainbat zergaren aldaketa partziala eta zergen arloko beste neurri batzuk xedatzeko Foru Lege Proiektuak zerga batzuk eta tasen erregulazioa ditu xede. Lege Proiektuak aldaketa ugari egiten ditu, ia gehienak zuzenketa teknikoak direlarik.

Beraz, oraingo Foru Lege Proiektuari buruz, aipagarriena langileriarekin guztiz bidegabea den zerga-politikari jarraitasuna emango zaiolako egiaztapena da. Krisi ekonomikoaren astindua nozitzen ari garelarik, administrazioaren eginbeharrak ekonomia berpizteko eta indartzeko moduko zerga-bilketa handiagoa bilatzea eta gizarte-gastu handiagoa egitea izan beharko luke, azken urteetan enpresei eta kapitalari zergak gutxitu eta kendu izan dizkien zerga-politika berarekin aurrera jarraitu beharrean.

Ez da zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko neurririk hartzen

Oraingo zerga-erreformak ere ez dakar lanarenak ez diren errentetan dagoen zerga-iruzur itzelari galga jartzeko neurririk, Nafarroako Gobernuak berarekiko tolerantzia handiz jokatzeko baitu.

PFEZ

- Lan-iraizpenengatik jasotako kalte-ordainen zerga-salbuespenari dagokionez

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren inguruan hartutako lehenengo neurria lanetik kanporatutako eta, hiru urteko epean, enpresa berak edo horrekin loturiko beste batek berriro kontratatu dituzten pertsonen kalte-ordainen zerga-salbuespenari buruz mintzo da.

Ildo horretan, ELAk hauteman eta jakinarazi zuenez, enpresa batzuetan onartutako Erregulazio Espedienteetan kanporatutako langileen kontratazioari lehentasuna ematen dioten klausulak jasotzeagatik, egoera bidegabeak gertatzen ari dira. Izan ere, pertsona horiei berriro lanean hasteko deitzen zaienean, lanaren errenta gisa ordaindu behar baitute kobratutako kalte-ordainari dagokion zerga, gehi interesak.

Lege-proiektu honek proposatzen duen irtenbidea kaltetu bakoitzak Ekonomia eta Ogasun Kontseilariari eskaera egitea da, horrek salbuespenaren zilegitasuna ebatz dezan.

ELA Sindikatuaren iritziz, lehen azaldutako iraizpen-egoera horren zioz kobratutako kalte-ordainak besterik gabe egon beharko luke salbuetsirik, dagokion Kontseilariaren nahieraren menpe utzi beharrean.

Legegintza-era horrek argi erakusten du ez dela neurri bera erabiltzen langileriarekin eta enpresekin, enpresei aplikatzen zaizkien salbuespenetan ezein Kontseilarik ez baitu onespenerik eman behar, kasu horretan salbuetsia izateko, baldintzak betetzea nahikoa eta.

- Taulak ez dira deflaktatzen

Oraingo aurrekontu-proiektuak ez du PFEZren taulen deflaktazioa xedatzen. Atal hori sartu ez izana ez da ausazkoa, zerga horren

gehikuntza estaltzeko modua baita, eta zergapeko tarte guztiei eragiten die.

ELAk zerga-presio handiagoa aldarrikatzen du, baina onartezin deritzo horrelako jarduketan bidez egiteari. Zerga-bilketa handitu egin behar da, bai, baina pertsona bakoitzaren diru-sarreraren eta irabazien mailaren arabera.

NOTAK

1 2011ko aurrekontu-proiektuan irakur daitekeenez "EAEko Administrazioak, 2011ri begira, zorpetze-eragiketetarako finkatutako gehienezko muga 1.187,31 milioi eurokoa da", eta "2011ko urtealdiaren itxierarako aurreikusitako zor-bolumenari 1.017,83 milioi euro gehituko zaizkio, legezko jaulkipen-muga agortzen bada".

2 2009ko urtealdiko zor biziaren 2.080,7 milioi euroak gehi 2010eko itxiera-aurreikuspeneko 1.888 milioi euroak.

3 6.355,9 milioi euroko hipoteka, 2008ko urtealdiko 87.142,6 milioi euroko BPGd-aren aldean.

4 1.192,2 milioi euroko hipoteka, 2008ko urtealdiko 19.218,1 milioi euroko BPGd-aren aldean.

5 5.163,7 milioi euroko hipoteka, 2008ko urtealdiko 67.924,5 milioi euroko BPGd-aren aldean.

6 Lanbideren transferentzia (472 milioi euro, 2011ko ekitaldian) eta Espainiako Gobernuak AHTaren eraikuntzarako emandako kudeaketa-kredituak (130 milioi euro 2010eko itxiera-aurreikuspenean, eta 275,5 milioi 2011ko aurrekontu-proiektuan) kenduta.

7 Lanbideren transferentzia (472 milioi euro, 2011ko ekitaldian), hala nola AHTa eraikitzeagatik Espainiako Gobernuari dagozkion kudeaketa kredituak kenduta (50 milioi euro, 2009ko ekitaldian, 130 milioi euro, 2010eko ekitaldiko itxiera aurreikuspenean, eta 275,5 milioi euro 2011ko aurrekontuetan).

8 Lanbideren transferentzia (472 milioi euro, 2011ko aurrekontuen proiektuan), hala nola AHTa eraikitzeagatik Espainiako Gobernuari dagozkion kudeaketa kredituak kenduta (6,7 milioi euro 2008ko likidazioan, 50 milioi 2009ko likidazioan, 130 milioi 2010eko gastu aurreikuspenean, eta 275,5 milioi 2011ko aurrekontu proiektuan).

9 Kontsumoko 4,7 milioi euro 2009an, 5,9 milioi euro 2010eko itxiera aurreikuspenean, eta 6,5 milioi euro 2011ko aurrekontuetan kenduta.

10 Kontsumoko 4,7 milioi euro 2009an, 5,9 milioi euro 2010eko itxiera aurreikuspenean, eta 6,5 milioi euro 2011ko aurrekontuetan kenduta.
